



uztarria

|||Azpeitiko herri aldizkaria|||2010eko maiatza|||17. zenbakia||||||

LAN MUNDUA GELDIRIK

Ekonomiaren krisia dela-eta, herriko hainbat familia eta pertsona hilaren bukaerara ailegatu ezinik dabilta 20

LABEA GARBITZEAZ ASPERTUTA?

HONA HEMEN LABEETAN AZKENEKO,
PIROLISIA ETA PERFECTCLEAN TALDEA



Miele

MIELE LABEA 4117 BP ED INOX

- Kontsumo gutxikoa
- Gia teleskopikoa du
- Erabiltzeko oso erraza.
- Oso iraupen luzeko elektragailua.
- PIROLISIA (bakarrik garbitzen da)
- PERFECTCLEAN (oso erraz garbitzeko sistema patentatua)

ETA GAINERA LABEA EROSIZ GERO
4 PIREX ONTZI SORTA OPARI



ESKAINITZA BEREZI GEHIAGO DENDAN



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefona eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 117.a (2010eko maiatza)

Urtea. XII.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685 730 792 /

oalegria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilero

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. G. Otamendi

Web orrialdea.

www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Uztarriak Bai Euskarari

Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



2010EKO MAIATZEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Zer iritzi duzu azken aldiko lapurretez? **13**

mamia

Joseba Lizarralde.

Eskola kiroleko

koordinatzaile

beteranoena **04**

Klik! Herriko argazki zaharrak ikusgai **16**

UEMA. Haren

kanpainari esker

errazagoa da deiturak

euskal grafiara

aldatzea **24**

jakiteko

Bestaldetik Erromeria

kontuak alde batera

utzi eta bestelako

gauzetaz arituko da

Xabier Saldias **34**


Ba aL dakizu erdarazko hedabide bateko kazetari batek euzkitzek euskalki denak dominatzen dituela uste zuela? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrian



943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide **gara** dagoeneko Uztarrian; eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean. 119.800 euroko aurrekontua du Uztarriak 2010. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre (Uztarriak hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)

JOSEBA LIZARRALDE

eskola kiroleko koordinatzailea

“Eskola kirolak oso balore onak dauzka”

Umeak eta gurasoak, denak aldatu dira eskola kirolean hasi zenetik. Baina ‘Rubio’-ri ilusioak eta erakusteko gogoak ez diote hutsik egin. 📧📧 Mailo Oiarzabal

Hogeitaka urte dira umeak entrenatzen hasi zela, Cesar Godoyk bultzatuta. Afizioa ofizio bihurtu zitzaion gero, baina ez ikasleek, ez kirolak, ez dute aspertzen Joseba Lizarralde *Rubio*. Iraurgi Ikastetxean gela bateko tutore, soinketa irakasle, eskola kiroleko koordinatzaile eta talde bateko entrenatzaile da. Iraurgi Saskibaloian kadedete mailako nesken entrenatzaile ere bai. Denbora liberrik ez apenas, baina egitekoak bete egiten duela antzematen zaio.

Zer eginkizun dauka kirol koordinatzaile batek?

Nik, Iraurgi Ikastetxeko koordinatzaile bezala, Eskola Kirol Kontseilutik antolatzen ditugun ekin-tzak aurkeztu behar ditut, taldeak

osatu, ekintza horietan parte hartu nahi duten guztien izenak hartu, Foru Aldundiko izen-emate dena egin, taldeak osatu eta talde horientzako entrenatzaileak bilatu. Eta gero, urtean zehar, jarraipen bat egin. Horrez gain, astearteetan biltzen gara Azkoitiko eta Azpeitiko kirol koordinatzaile guztiak [Lehen Hezkuntzako bost ikastetxeetakoak], gehi Azpeitiko eta Azkoitiko udaletako kirol teknikariak.

Eskola kirola Diputazioak arautzen du. Zer iritzi duzu, araudiaz eta antolaketaz?

Legia Jaurilaritzak atera zuen eta, niretzat, lege hori dudarik gabe ondoen, garbien eta zentzu gehienarekin aplikatu duena Gipuzkoako Foru Aldundia da, kirol

III DATUAK

III **Jaio.** 1967ko maiatzaren 16an.

III **Herria.** Azpeitia. III **Bizi**

tokia. Azpeitia. III **Lanbidea.**

Irakaslea. Iraurgi Ikastetxeko eskola kiroleko koordinatzailea da.

aniztasunaren alderditik. Ni bat nator horrekin. Bai Bizkaian eta bai Araban, zortzi urterekin, ume bat ja sartzen da bere herriko futbol taldean, edo saskibalo taldean, eta urte osoa, edo bizitza osoa, kirol bakarrean aritzen da, asteen bere bi edo hiru entrenamendu eginez. Hemen [Gipuzkoan], zorionez, Lehen Hezkuntzako 6. maila arte, talde federatu batean ezin dira sartu; orduan, denak eskola kirolean ibiltzen dira. 6. mailan, talde federatuan sartzen dira, baina eskola kirola

ere egiten dute. Gu tradizioz futbola eta saskibaloia lantzekoak izan garenez, bi ardatz nagusiak futbola eta saskibaloia dira. Eta beti lantzen ditugu esku-pilota, igeriketa, herri kirolak, atletismoa, txirrindularitza...

Urtetik urtera eskaintza zabaltzen saiatzen al zarete? Zer muga daude?

Kontu hori zabaltzearekin, azkenean, ikusten dut bolada batzutan umeak saturatu egiten ditugula, eta umeak baino gehiago, gurasoak. Eta logikoa iruditzen zait. Azken finean, eskola kirolaz gain talde federatuen eskolak sortu direnetik, badaude ume batzuk ekintzak dituztenak larunbat goizetan, larunbat arratsaldetan, eta igande goizetan. Familia ba-



Joseba Lizarralde, entrenatzen duen Iraurgi Ikastetxeko ikasle taldeko kideez inguratuta.

tentzako, igande arratsaldea bakarrik edukitzea, ba...

Umeak garai batekoak baino askoz sedentarioagoak direla diote.

Hala da. Gure garaian, eskolatik ailegatzen ginen, ogitartekoa hartu eta ogitartekoa jaten ari girela ere jolasean jarduten ginen. Egun guztia jolasean pasatzen genuen; etxeko lanak bagenituen ahalik eta azkarren egiten saiatzen ginen, eta egun guztia kalean pasatzen genuen. Orain, berriz, ordenagailuak direla, messenger-ak, beste Facebook eta Twitter eta historia horiek dituzte, kontsolak, mugikorra...

Zeinek ematen dizue lan gehiago, umeek ala gurasoek?

Dudarik gabe, gurasoek. Entre-

natzaile asko eta asko gazteak dira. Badugu jende heldua ere, eta batzuk tituludunak ere bai. Baina, talde asko baldin badaukazu eta ez bazaizu jendea iristen... Eta gurasoek, seme-alaben entrenatzailea heldua izan ala gaztea izan, jarrera oso desberdina izaten dute. Txarrena izaten da, partidetan, entrenatzailearen gainetik jartzea. Zaila da 16-17 urteko gazte batek guraso horri aurre egitea. Orokorrean ondo joaten da, baina beti egoten da bakarren bat...

Umeek beren kasa erabakitzen dute kirola egitea ala gurasoen bultzadizoak pisua dauka?

Nire ustez, gurasoek asko bultzatzen dituzte kirola egitera. Umeei orokorrean gustatu egiten zaie,

baina badaude tartean behin kirola gustatzen ez zaien umeak. Eta gurasoek bultzatu egiten dituzte, batik bat talde baten barruan ibiltzeko, lagunartean ibiltzeko. Horri asko begiratzen diote. Gure garaian auzoan elkartzen ginen eta auzokoak genituen lagunak. Orain gehienetan ikastetxean egiten dituzte lagunak.

Hori modu positiboan baloratzen al duzu?

Noski, oso positiboa da. Umeak ume artean ibili behar du; beraien arteko harremanak, beraien arteko jolasak eta beraien arteko haserreak, denak behar dituzte. Guraso denak bultzatuko nituzke seme-alabak eskola kiroleko ekintzetara bideratzera, kirola egitea oso osasuntsua eta oso ona delako, eta umeak talde ba-

tean ibiliko direlako. Eskola kirolak oso balore onak dauzka, batik bat errespetuaren aldetik. Eta gurasoak oso parte garrantzitsua dira balore horiek aurrera ondo eramaterakoan.

Zeuretzako denborarik hartzen al duzu?

Egia da urtearen bukaeran, askotan ailegatzen zarela astebete lasai pasatzeko gogoarekin, baina gustuko lanean aldaparik ez, eta berriz ere animatu egiten zara. Niretzat irakasle izatea poz bat da, benetan gustura sentitzen naiz lan horrekin. Beti esaten dut, loteria tokatuz gero, momentuan behintzat lana ez nukela lagako. Eta kirol mundua pila bat gustatzen zait, bai umeekin egiten dudana lanaren aldetik, bai zaletu bezala.✱



Etxerako instalakuntzak • Argiteria • Bainuak • Sukaldeak • Lokalak • Etxerako
 Instalakuntzak • Argiteria • Bainuak • Sukaldeak • Lokalak • Etxerako
 Instalakuntzak • Argiteria • Bainuak • Sukaldeak • Lokalak • Etxerako instalakuntzak •
 Argiteria • Bainuak • Sukaldeak • Lokalak • Etxerako instalakuntzak • Argiteria •
 Bainuak • Sukaldeak • Lokalak • Etxerako instalakuntzak • Argiteria • Bainuak •
 Sukaldeak • Lokalak • Etxerako instalakuntzak • Argiteria • Bainuak • Sukaldeak •
 Lokalak • Etxerako instalakuntzak • Argiteria • Bainuak • Sukaldeak • Lokalak • Etxerako
 instalakuntzak • Argiteria • Bainuak • Sukaldeak • Lokalak • Etxerako instalakuntzak

Izarraitz Auzoa, 66 • 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) • Tel: 606 30 63 68 • axkiola@gmail.com

Iritziaren mugak

Goizean jaiki, gosaria hartu eta munduan eta inguruan zer gertatzen ari den jakiteko egunkari bat esku artean hartzea pertsona askorengan errepikatzen den errutina da. Sinplea eta aldi berean konplikatu, ez batzuentzat goizean gosaria hartzeko aukera izatea luxu bat delako, iritzia eta albisteak modu askean jasotzeko aukera ere gero eta zailagoa delako.

Aurreko adierazpenaren adibide ditugu munduan prentsa askatasunari jartzen zaizkion oztopoak. Baina hau ez da soilik herrialde azpigaratuetan eta diktaduretan gertatzen; zoritxarrez gero eta gehiago mundo osoan. Txinak edo Errusiak prentsa askatasunari jartzen dizkioten mugak denon ahotan daude, baina ez da egi txikiagoa demokrazia zaharretan ere iritzia eta albisteen hedapenari mugak ezartzen zaizkiola.

Maiatzaren 3an izan zen Prentsa Askatasunaren Nazioarteko Eguna eta ospakizun honek gogoeta bat egiteko eta iraganera begiratzeko aukera ematen digu. Kazetaritzaren hastapenak erromatarren garaian aurkitu ditzakegu, Julio Zesarrek eguneroko gertakizunak jasotzen zituen *Gaueko Akta* Erromako Foroan argitaratzen zuenetik. Hala ere, ez da XIX. mendera arte kazetaritza modernoa garatuko, bereziki Ingalaterran eta AEBetan. XX. mendean joera honek gora egin zuen eta horregatik egun demokrazietan 'laugarren boterea' bezala ezagutzen da.

Botere horretaz jabetuta gobernuek nahiko azkar ekin zioten prentsa askatasunari mugak jartzeari, gehienetan gainera ez modu zuzen batean, baizik eta ezkutuko estrategiak erabiliz. Ikerketako kazetaritza izan da modu nabariago batean askatasunaren urraketa hau pairatu duena. Nork daki gaur egun 1970eko hamarkadan AEBetako lehendakaria zen Richard Nixon dimititzera behartu zuen Watergate ikerketa posible izango zen hala ez.

Gure artean ere baditugu prentsa askata-



markel mendizabal

III (...) kazetari ausarten lanek ziur beti aurkituko dutela oihartzuna munduan eta inguruan

sunaren mugaketa eta urraketa adibide garbiak. Orain dela gutxi auzitegiek ebatzi duten *Egunkaria*-ren auzia oso esanguratsua da zentzu horretan. Euskaraz argitaratzen zen egunkari bakarrak jasandako itxiera judiciala eta jazarpena ez dira demokrazia batean onargarriak. Arazoa ez da orain auzitegiek bi-degabekeria hura konpondu dutela, baizik eta benetan botereak kontrolatzen ez dituen hedabideen jardura askeari dioten beldurra.

Geroa, baikortasunez

Etorkizuna, hala ere, beti baikortasunez ikustea da komenigarria eta Interneten eta kazetari ausarten lanek ziur beti aurkituko dutela oihartzuna munduan eta inguruan benetan zer gertatzen ari den jakin nahi duten herritarren artean.

Bere lanean diharduten kazetari profesional eta ausart guztiei zor diegu gure errespetua eta, nire alde-tik, beren eguna ospatu eta etorkizunerako erronka berriak ezar ditzatela opa diet.*



Xanti.R

BIGARREN ESKUKO AUTO AZOKA, LOIOLAN

**Maiatzak
13tik 16ra**

**Goizez eta
arratsaldez
irekita**



KOTXE BAT EROSIZ GERO 300€-ko DESKONTUA FIDELITY TXARTELEAN



MÉGANE

1.9 dCi 130cv (2006)

9.300 €



CLIO

1.2 100cv (2008)

10.000 €



KANGOO COMBI

1.5 dCi 70cv (2008)

12.200 €



CLIO GRAND TOUR

1.5 dCi 85cv (2009)

13.450 €



ESPACE

2.2 dCi 150cv (2005)

13.500 €



SCÉNIC

1.5 dCi 105cv (2008)

16.150 €



LAGUNA

2.0 dCi 130cv (2008)

16.900 €



SCÉNIC

1.5 dCi 105cv (2010)

21.150 €

KM.0

BIGARREN ESKUKO 100 AUTOTIK GORA AUKERAN.

Kontsultatu beste motore eta ekipamendu aukerak. Unitate mugatuak.
Finantziario aukera zabalak. Galdetu lasai.

www.autoberri.com

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

Prezio transferentzi gastuak barne, 10/05/31 arte edo ta izakinen amaierarte baliozko eskaintza.



AUTOBERRI LOIOLA AUZOA 20. AZPEITIA. TEL. 943 81 08 08 - 943 15 79 01

Galipota vs itxulapikoa

Gora galipota!, Gora Beverly Hills 20730!" esanez amaitu nuen aurreko artikulua eta modu berdinean hasi beharra neukan honako hau ere. Loiolako Hiri-bideko biribilgunea nahikoa ez eta orain Azpeititik Lasaoara doan bidegorria asfaltatu behar ez dute ba! Zertarako eta bizikletan bertatik joan ahal izateko. Ez da bada izango orain ezin delako joan! Udalaren oniritziarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko (grazia egiten dit) Departamentuak 3.385.000 euro (563.216.610 pezeta) gastatuko ditu bide horretan galipota gorria botatzen eta marra zuriak eta bizikletatxoak lurrean marrazten. "Zu hortik eta zu hemen-dik" esateko, azken finean.

Orain esan diezadatela zertarako behar den bide hori galipotaz estaltzea. Oinezkoek ez dute inolako arazorik hortik oinez ibiltzeko, ezta txirrindulariek ere. Zibismo kontua besterik ez da: oinezkoak gertu daudenean poliki joatea, edukazio osoz txirrina jotzea eta oinezkoek, edukazio osoz, pasatzen uztea. Hori bezain sinplea. Nahiko seguru nago, gainera, ziklistek errepidetik joaten jarraituko dutela. Ala zenbat mailadun eta kaskodun ikusi dituzte Diputaziokoek jada eginda dauden bidegorrietan?

Ez dezala inork pentsa bidegorrien aurka nagoenik, ezta pentsatu ere. Oso ondo iruditzen zait Gipuzkoa barruan edozein tokitara bizikletaz joan ahal izateko azpiegiturak jartzeta. Gaizki iruditzen zaidana da, jada erabilgarri dagoen bide batean hainbeste diru gastatzea, hortik bizikletaz edo oinez joateko inolako arazorik ez dagoenean. Gainera, askoz politagoa da horrela eta ibiltzeko hobe eta erosoagoa! Bidegorriak egin nahi badituzte, diru horrekin egin, adibidez, Azpeititik Urrestilla edo Nuarberainoko bidegorria. Baina, bizi ditugun garai zailak ikusita eta jasanda (Foru Aldundia da pairatzen lehena), gu guztion dirua benetan behar diren gauzetan gastatu beharko litzateke, eta bestela gorde.



|||||||**olatz prat**|||||||

||||**Ikus dezatela azpeitiarrok badakigula bide hori dagoen bezala konpartitzen eta gozatzen**

3.385.000 euro horiek (ai ene!), itxulapikoa bete eta eduki, edozertarako. Bestela, diru horrekin Aldundiak egin ditzakeen zenbait gauza bururatzen zait, asko pentsatu gabe. Hilaren bukaerara iritsi ezinda dabiltzan familia eta pentsiodunei banatzea, etxeetan berogailua jartzeko dirurik ez duten haiei laguntzea, nekazariei kazkabarrak hondatutako baratzeen kalte-ordainekin laguntzea, "zu ERE" edo "zu ere kalera" fenomenoek jotako haientzako soluzioak bilatzea eta beste milaka gauza.

Dagoen bezala, ondo

Beraz, etor daitezela Aldundikoak eta ikus dezatela azpeitiarrok (oinezko zein txirrindulari) badakigula bide hori dagoen bezala konpartitzen eta gozatzen. Kezka daitezela benetan kezagarriagoak diren gaiez. Langabezian dauden langileek ez baitute bidegorririk edo bizikletarik behar lanera joateko.✕





ikasberri
AZPEITIKO IKASTOLA

OTEITZA
LIZEO POLITEKNIKOAK

Prestakuntza egokiena, ikastoletan

BATXILERGOA

- ✓ GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- ✓ OSASUN ETA NATUR ZIENTZIAK
- ✓ TEKNOLOGIA

LANBIDE HEZIKETA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- ✓ Mekanizazioa
- ✓ Ekipo eta instalakuntza elektroteknikoak

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- ✓ Industri ekipoaren mantenua
- ✓ Mekanizazio bidezko produkzioa
- ✓ Proiektu mekanikoen garapena
- ✓ Erregulazio eta kontrol automatikoak

Gure ikastolak ezagutu eta zuzeneko informazioa jaso ezazu

IKASBERRI
AZPEITIKO IKASTOLA

Loiolako Inazio Hiribidea 26
20730 AZPEITIA

tfna.: 943151246

faxa.: 943151776

e-maila: ikasberri@ikastola.net

OTEITZA
LIZEO POLITEKNIKOAK

Gipuzkoa kalea 5
20800 ZARAUTZ

tfna.: 943111000

faxa.: 943110990

e-maila: informazioa@oteitzalp.org

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Euskaraz, hobeto.

Euskararen normalizazioa lortzeko bidean urratsa eman du saltzaile honek. Gustua ematen du euskarazko kartelak ikusteak. Bejondeiola! 📎 Uztarria

**BEHERA.** Enpresa eta euskara salgai.

Industria-nabea ez ezik euskara bera ere salgai jarri du enpresari honek. Euskararen normalizazioa lortzeko bidean atzerapauso nabarmena. 📎 Uztarria*



Estitxu Elduaien.

ESANA DAGO

III “Gustura hartzen dira horrelako albiste onak, baina, korapiloa ere badut, zazpi urte eta kalte ugari behar izan baitira norbaitek guk hasieratik genekiena esateko”

ESTITXU ELDUAIEN
kazetaria

III “Ausartak izan behar gara umeei errealitate batzuk kontatzeko”

ALAITZ OLAIZOLA
idazlea

III “Behin honetan sartzen denak ez du uzten, gustatu egiten zaio eta jarraitu egiten du”

J. L. FRANZESENA
organo irakaslea



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Gailurra egin edo gailurrean bizi?



aitor zulaika

Azken egunotan denon ahotan dabilki-
gun gai batekin nator oraingoan: mendia,
euskaldunok hain maitatua dugun mendia.
Garbi dagoena da mendia bizitzeko edo
mendian kirola egiteko modua erabat aldatu
dela azken urteetan, bai Himalaian eta baita
hemengo mendietan ere. Ikusi besterik ez
dago gurean ere, zenbat mendi lasterketa
eta zenbat lehiaketa antolatzen diren men-
diaren inguruan. Oraingoak bai direla 'ibilaldi
neurtuak', zentzu guztietan.

Errealitate aldaketa honekin, zenbaiti men-
dian kirola egitea ogibide izateko aukera iritsi

zaie eta hala hautatu dute. Aukeraketa hau
egitea oso errespetagarria dela iruditzen zait,
batzuk itsasoko olatuak dituzte ogibide eta
beste batzuk mendiko harkaitzak. Mendizale
izatetik mendiko profesional izateko urratsa
egin dute, guztiz legitimoa den erabakia,
nahiz eta denon gustukoa ez izan.

Aukeraketa hori egitea legitimoa eta erres-
petagarria iruditzen zaidan moduan, nahiko
kritiko naiz gailurrak egiteko orduan edozein
bide edo modu hartzearekin. Bide honek bi
baldintza ezinbesteko izan behar ditu gutxie-
nez: bide naturala izatea bat, eta 'aurkariak'

eta kideak errespetatzea bestea. Helburuak
ez du edozein bide justifikatzen nire iritzi apa-
lean. Ez da berdina gailurrera joan edo gailu-
rrera eramatea.

Amaitzeko, betiko legez pare bat kontu
hausnarketa moduan. "Oxigenoaren lagun-
taz mendian ibiltzea, Tourra motor txiki bate-
kin egitea bezala da". Iñaki Otxoa de Olza
mendigoizale zenak esana da hori. Beste
alde batetik, aurtengo Segurako prozesioan
ama birjinaren irudia ikustean mendizale
batek esana: "Horrela eramaten ditek Edur-
ne gailurrera".✱

IKUSTEKOAK



▲BATZOKIAREN ATZEKALDEKO PASABIDEAN EGOTEA DEBEKATUTA.

EAJren batzokiaren atzekaldeko pasabidean alkatetzaren aginduz jarritako kartela da goiko argazkian ikus daitekeena.
Debekuarekin gustura ez, nonbait, eta bakarren batek karteleko hainbat letra kendu ditu, gisa horretan igarobidean egon ahal
dela jarritz. Udalak, ordea, debekuaren kartela berriro egokitu eta jarri egin du. 📞 Ainitze Agirrezabala✱

APIRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN.....



Egunkaria libre

JUSTIZIARIK EZ. Zazpi urte eta gero, epaia ezagutu dugu. Euskal herritarrok itxieraren aurrean erakutsitako jarrera irmoa *Egunkaria libre* lelopean finkatu zen. Ordurako, gurean adierazpen askatasunaren aurkako kolpeak ezagunak genituen: *Egin*-en itxiera. Martzelo Otamendik adierazi moduan, epaia eman da, baina justiziarik oraindik ez da lortu. Ez *Egunkaria*-rekin, ez *Egin*-ekin, ez euskal gizartearekin.



izaskun egiguren



Sexualitate osasuntsua

IKASTAROA. Emakumeen Jabetze Eskola martxan da herrian. Emakume eta gizonezkoei zuzenduriko sexualitate ikastaroek arrakasta dute gurean. Sexualitatea askatasunez bizitzen ikasteko aukera ematen digute; guztia sexualitate osasuntsu baten alde.



Pasaiaiko Sarraskia Argitu

PASAIKO SARRASKIA. Dionisio Aizpuru Kurro eta Pedro Mari Isart *Pelitxo* azpeitiarrak erailak suertatu ziren gertaerek argitu gabe jarraitzen dute oraindik orain. Haien senitartekoei eta Pasaiaiko Sarraskia Argitu Taldeak, urtero moduan, ekinbide desberdinak bideratzen di-

tuzte, Pasaia ko badian jazotako gertaera haiei buruzko argibideak eskatuz. Zoritarrez, aurtien ere debeku eta eragozpenei aurre egin behar izan diete. Zergatik jartzen ote zaizkio hainbeste traba egia ezagutzea nahi duenari?*

INKESTA

zer iritzi duzu
azken aldiko
Lapurretez?

Ainitze Agirrezabala

JOAN MARI LAZKANO

jubilatua



"Ez dago ondo,
egiten zaion hari
min ematen zaio.

Etorkinei botatzen

diegu oker guztia. Garai batean,
serenoak gauez lanean ezagutu
nituen, baina gaur halakorik ez
dago. Autoritateak zerbait egin
beharko luke. Ez dago kontua
konpontzen erraza".

JEXUX OTAMENDI

langilea



"Egoera sozial eta
ekonomikoa dela-
eta geroz eta
gehiago ikusiko

dira. Neurri polizialek okertu
egiten dute. Analisia sakona
egin beharko litzateke goitik
behera eta esparru guztietan".

URKO VALVERDE

langilea



"Lapur
profesionalak
dira. Lasaitasun
oso lapurtzen
dute, egun argiz igoal. Lehen
halakorik ez zen eta gauzak
asko egokitu beharko dira
konpondu nahi bada".

PATXI EGAÑA

langilea



"Egunez herria
zaintzea ondo
dago, baina gauez
zaindu beharko

litzateke. Lapurrek beraiek
kontrolatzen dituzte udaltzainak
eta gauez kaleko jantzita ere
ibili beharko lukete".*

Zer da zipaioa?

Zaharra da zipaio kontzeptua. Otomandar Inperioko eliteko zaldun batzuei deitzen zieten horrela duela mende batzuk. Geroago, Indian ere erabili zen kontzeptu hori. Ingelesek hainbat indiar hartu zituzten soldadu bezala beraiekin gerra egin zezaten, herrikideak akabatu eta europarrei lur berriak emateko. Horrela, hainbat burges eta militarrek dirutza egin ahal izan zuten, beste hainbaten miseria sustatuz.

Konplexua da Indiako zipaioen historia, baina momentu batean altxatzeko erabakia hartu zutela esan beharra dago. Inperialismo ingelesarekin nazkatuta, herrialdeko zenbait tokitan matxinadak piztu ziren traidoreen eskutik, eta kontrola hartzera ere iritsi ziren leku batzuetan. Azkenean, ez zuten beraien helburua lortu matxinadan parte hartu zutenek, eta bai ingelesek eta bai beste zipaioek, altxamendua-reenkin amaitzea lortu zuten.

Gaur egun, mertzenario edo traidore bezala defi-



XABIER OTAMENDI

nituko genuke zipaioa. Kontzeptu hori, esanahi horrekin, Arturo Jauretche idazle argentinar eta ezker-tiarrak zabaltu zuen, beste kontzeptu batzuekin batera, 1930eko hamarkadan. Jauretche hasi zen, bere artikuluetan inperialismoaren edo zapaltzaileen alde lanean zebilen edonor definitzeko, hitz hori erabiltzen.

Madrildik iristen diren aginduak betez, Euskal Herrian eta Azpeitian bertan ere ezarri den errepresioa argi ikusi dugu urteetan zehar. Pasaiko sarraskia argitzeko eskatzen zuen manifestazioa eta Pausoz Pauso ekimena, gure herriko azkenaldiko bi adibide garbi ditugu. Ertzaintzak galarazi zituen bi ekimen horiek. Pasa den hileko Uztarrian, Miel A. Elustondok zioena ere ez dago ahazterik. Zerrenda ez da hor amaitzen, eta gure inguruan errepresio kasu pila ditugu. Hori ikusita, bati baino gehiagori etortzen zaio behin eta berriz aipatu dudana kontzeptua burura.*

galdetzen hasita, zergatik ematen
zaizkie baratzeak erretiratuei baina ez,
adibidez, Langabetu gazteei? Uztarrria

Zazpi urteko kondena

Luze joan zen apirilaren 12ko goiza erredakzioan. Askotan esan zen epaiketa irabazita zegoela, baina epaia aldekoa izango zen ez zegoen hain argi, Espainiako Auzitegi Nazionala zegoen tartean. 12:47an iritsi zen lehen filtrazioa. Absolutzioa bost auzipetuentzat. Nahasiak izan ziren hurrengo hamar minutuak, sinestu ez sinestu. Azkenean, abokatua-ren deia, baietz egia zela. Besarkadak eta xanpain botilak etorri ziren gero. San Inazio bezperan atera ezin izan ziren haiek. Epailak epaiketa egin egin behar zela erabaki ostean, zer ospatu gutxi egon baitzen uztailaren 30ean. Ez naiz originala izango, baina hainbeste aldiz esan dena berriro errepikatzea ez dago soberan. Pozerako motibo gutxi zegoen oraingoan ere. Orri batzuek inondik inora ez baitute konpontzen egindako min guztia, baina lasaitasunak merezi zuen hainbeste.

Kondena berririk ez zuen agindu epailak, baina kondena latza da hainbeste urtean kartzelaren itzala



MIREN GARATE

gainean dela bizi behar izatea bera, egunkari bat likidatu izana. Egunkaria itxi zuten egunaz pentsatzen jarri eta telebistako irudi batzuk bakarrik etortzen zaizkit gogora. Donostian egindako manifestazioaz bai, hartaz ondo oroitzen naiz. Nire kasuan, artean ez nekien zer ikasiko nuen ere. Karrera hasi, bukatu eta Berria egunkarian hiru urte egin ditut orduak.

Zazpi urte, erraz esaten da. Eta oraindik ez da amaitu kontua. Auzi ekonomikoak ere hor jarraitzen du, zortzi pertsonarentzako zigor eskaera beldurgarriekin eta isun ordainezinekin. Akusatzen jarraitzeko asmoa duela iragarri du dagoeneko Dignidad y Justiciak. Ezin ahaztu beste hainbat eta hainbat auzi bidegabe ere. Gezurra ari du liburua idatzi zen Egunkaria-ren itxieraren harira. Tamalez, oraindik zaparradak jarraitu egiten du Euskal Herrian. Okerrena, ekaitzek harritu ere ez gaituztela egiten dagoeneko.*



Pausoz Pauso

Debekatu egin zuten pasa den hileko Pausoz Pauso ekimena, baina ezin dute debekatu presoek eskubideen aldeko elkartasuna. Ibiltariak Azpeitira etorri gabe gelditu ziren, baina azpeitiar mordoa izan zen Zestoan elkartasuna adierazten. Baita presoek eskubideen aldeko bertso saioan ere.

Dagozkien eskubideen alde, Euskal presoak Euskal Herrira, hori da Pausoz Pauso ibilbidearen leloa, baina Estado social de derecho espainiarrean ez ditugu denok derecho berak. Eta, gainera, eskubide horiek eskatzea ere galarazi egiten digute. Ustez gure

eskubide direnak ezin ezta aipatu ere. Espainiako Auzitegi Nazionalak debekatu zituen ekitaldiak, eta Ertzaintzak gauzatu. Dignidad y Justicia elkarteak egin zuen eskaera, *Egunkaria* auzia aurrera eramane duen bera.

Egunkaria-ren kasuan, baina, absoluzioa lortu dugu, eta ospatu ere ospatu genuen Bilbon, ekitaldi eder batean. Baina, aurrera egin behar, bistan da, oraindik erasoak etengabeak direlako. Presoen eskubideen alde, gazteen atxiloteta etengabeekin, Udalbiltza kasuan, *Egin* eta *Egin* Irratiaren kontuan, *Egunkaria*-ren auzi ekonomikoa dela eta...

Izenik gabeko euskal herritar ugarik aritu beharko dugu merezi duten laguntza eta animoa horiei ematen, ezagutzen ez gaituzten arren, ahalik eta hurbilen senti gaitatzela. Badaukagu lana. Bitartean Bilbon oparitu zigiten posterrarekin geratuko gara, Iñaki Epelderen pinturarekin eta Jesus Peñagarikano-ren hitz hauekin:

“Egunkariari laguntza eta animoa, sarri anonimoa, ezezagun baina lagun. Eskerrik asko”.*

GAIBAT, BI IKUSPUNTU

marihuana. Arartekoak gazteen artean hain hedatua dagoen sustantzia Legeztatzea proposatu du txosten batean. proposamena zilegi ote?

Nori heldu?

Ukaezina da marihuanaren kontsumoa oso garatua dagoela gure gizartean, eta honi aurre egiteko ilegalizazio eta penalizazioak ez direla neurri eraginkorrenak. Drogen analisian beti horien efektu eta ondorioak aztertzen dira; horien kontsumoak ekarri ditzakeen alderazioak, esaterako. Ekarki ditzakeenak, ez ekartzen dituenak, droga kontsumitzaile ugarik erakutsi diguten eran. Baina, zer paper du bizi dugun gizarte ereduak guzti honetan? Nori heldu beharko genioke, drogei beraiei edo horien kontsumora bultzatzen gaituen sistema alienanteari? Bigarren mailako analisiak falta zaizkigula iruditzen zait.

Bestalde, pertsonak egiten duenarekin arduradun eta kontsekuente izan behar du, hemen errealitatea edo izaera aldatzen duen edozein sustantzia sartzen delarik, baita kafea eta azukrea ere. Hau honela izanik, ez dut ulertzen zergatik hartu behar duen estatua zein droga kontsumitu dezakedan erabakitzekeo ardura. Uleriezina egiten zait alkohol trafikatzailerak pertsona duin eta errespetagarriak izatea eta cannabis trafikatzailerak, berriz, mota guztietako jazarpenen biktima.

Ama lurrak emandako landare baten landatze zein kontsumoak despenalizaturik egon beharko luke. Hausnartzekoa da, legala izanez gero zergatan aterako luketen diruari uko egiteko atzetik izango diren interes ezkutuak.*

III Kontsumo horri aurre egiteko ilegalizazio eta penalizazioak ez dira eraginkorrak

|||||||j. arregi||| (langabetua)

Zer ikusi, hura ikasi

Hamabi eta hamabost urteko seme-alabak ditut eta koadrilan irteten direnetan egiten dutenak asko kezkatzen nau. Denak izan gara gazteak, baina gaur egun edozein lekutan ikusi daiteke norbait porro bat erretzen. Orokorrean, kontsumoa oso hedatuta dago eta gazteek ere zer ikusi hura ikasten dute. Eta, halako gauzak-eta oraindik eta azkarrago. Badakit, marihuana izatez ez dela droga gogorra, baina beldurra dut horren gazte —hamahiru urterako— halakoak probatzeak duen arriskua. Adin horretan hasten dira lagunekin kalera irteten eta mundu oso bat dute aurretik deskubritzeko. Artean, nortasuna guztiz garatu gabe izaten dute eta bizitzako bideak finkatu gabe dituztenez, kontsumo horretan bete-betean sartuz gero ikasketak eta bizitzako garai horretan dituzten bestelako ardurak alde batera uzteko arriskua ikusten dut.

III Gure seme-alabak dira etorkizuna eta geroan ondo izango bagara, gaztetatik zaindu behar dira

Behin edadean aurrera, ikasketak amaituta eta gazteak lan bati heldu dihonean, pertsona nahikoa arduratsua da marihuana kontsumitzea erabakitzekeo.

Marihuana legeztatu bai, ez, eztabaida horretan eskatuko nukeena adin jakin bat arte horren eskura ez dezatela izan inolako drogari. Eta, droga aitatzen dudanean, alkohola ere zaku horretan sartzen dut. Gure seme-alabak dira etorkizuna eta geroan ondo izango bagara, orain eta gaztetatik zaindu behar ditugu.*

|||||||leire azkue||| (gurasoa)






▲ GAZTE EGUNA.

Oargi elkarteak Gazte Eguna antolatu zuen Azpeitian eta herri kirolak zezenplazan egin zituzten. Etxeberria sendiak utzitako argazkia da.

Iraganari begira

Herriko 143 argazki zahar jarri dituzte ikusgai Betharrametako aretoan; argazki gehiago bildu asmoz, beste ahalegin bat egingo dute. 📎 Ainitze Agirrezabala



▲ TIPLEAK.

1920ko argazkia da, Etxeberria sendiak utzitakoa. Parrokiko tiple taldeko hainbat gazte arropa zuriz eta eliz mutilez edo akolitoz jantzita ageri dira. 1956. urtean, parrokiko tipleak Eskoziara egin zuten bidaia; kantatzera joan ziren. On Julian Barrenetxea zuten garai hartan parrokiko tipleek abesbatzako irakasle.

► GERRA ZIBILA.

1936an, gerra zibila hasi eta pare bat hilabetera-edo sartu ziren tropak herrian. Nazionalak Azpeitia eta Azkoitia egun berean hartu zituzten. Argazkian, plazan soldaduak ikusi daitezke, Espainiako bandera udaletxeko balkoitik zintzilik eta arkupeak zakuekin babestuta. Etxeberria sendiak utzitako argazkia da.





▲ EZBEHARRAZESTOAN.

1953ko urriaren 14an botatako euriteen ondorioz, Zestoan urak ibaietatik atera eta La Guipuzcoana autobusa urak eraman zuen. Ezbeharrean hamar azpeitiar ito ziren. Argazkian, lagun haien hileta eguna. J. R. Etxanizek utzitakoa.

► AZOKAREN ONDOKO KOMUNA.

1950eko hamarkadan, azokaren alboan zegoen komuna. Argazkiko hainbat lagunaren izenak: Kruz eta Alejandro Etxeberria, Gregorio Otamendi, Kasiano Garaialde apaiza —eskuetan kapelarekin— eta Kasto Orbegozo. Argazki hau ere, Etxeberria sendiak utzitakoa da.

▼ ANTZEZLANA.

Herriko sierbetako mojentzako dirua lortzeko, Jose Aizpuru Jakak antolatutako *El verdugo de Sevilla* antzezlanean parte hartu zuten lagunak ageri dira. Soreasun antzeztu zuten obra, 1955ean.



▲ GARAI BATEKO SANINAZIOAK.

1974ko saninazio festetan buruhandiak eta Lizarrako Montero dultzainariak, Errebaletik plazara. Otamendi sendiak utzitako argazkia da.





▲ KASINOKO LAGUNAK

Kasinoko lagun taldeak eta bertako zerbitzariak soinu-jole eta txistulariekin ateratako argazkia da goikoa. Kaito argazkilariak ateratakoa da eta Aizpuru Jaka sendiak utzi du argazkia, Azpeitiko Argazki Elkartearen eta Udalaren ekimenez osatu den argazki erakusketan ikusgai jartzeko.

▼ ASTOAREKIN EGUNPASA.

Rufino Altamira, Joxe Aranburu, Pepe Azpiazu, Jose Espel, Josemari Castiella, Angel Carasusan eta Pepe Eiguren. Maria Luisa Larrañagak utzitako argazkia da.✱



Argia noiz ikusiko

Ekonomia krisia medio, herriko hainbat familia aurrera egiteko estu eta larri dabilta. Haietako hirukin hitz egin du Uztarriak. 📝📞 Ainitze Agirrezabala

Krisiaren hatzamarra gotik ari da astintzen bazterrak. Arazo korapilotsua da; askatzen zaila eta bihurria den matza. Hainbatek krisia aurtan gainditzen hasiko dela iragarri arren, ondorioak oraindik luzaroan igarriko direla uste dute eragile gehienek. Kontua ez dago gozoa. Lan munduan izaten ari den beherakadak herriko hainbat familia estu hartu ditu. Krisiaren eraginaz herriko hiru lagunekin hitz egin du Uztarriak.

J. Z.

||| **Adina.** 37 urte ||| **Zer egoeratan dago.**
Udalak hilean ematen duen 426 euroko laguntza jasotzen du.

“Inguruko enpresa guztiak pasa ditut, curriculuma entregatuz”

“Gau asko lorik egin gabe pasatzen ditut. Zer izango den arrastorik gabe, ohera sartu eta kezka horrekin ezin izaten dut lorik egin. Goizeko laurak eta esna igoal, buruari bueltak ematen. Bederatzi urteko semea dut eta hamabi urteko alaba. Emazteak ez du lanik egi-

ten eta langabezia-saria bukatu zitzaidanez, orain udalak ematen duen subsidioa jasotzen dugu. Hilean 426 euro. Ezin da ailegatu. Hutsaren hurrengo da hori. 2005eko martxoan hasi eta 2008ko otsaila arte Grumal taldeko hiru enpresatan –Seitu, Pemec eta Laguntzaile–, batetik bestera, egin nuen lana. Behin-behineko kontratu laburrak ziren, batere egonkortasunik eta segurantzirik gabe. Halere, Pemec-en azken kontratua urte betekoa egin zidaten, 2007ko martxotik 2008ko otsailera. Hurrena ia kontratu iraunkorra egingo zidatela esan zidaten. Orduan lan kontua oso ondo zegoen eta ilusioak egin nituen. 2007ko urrian, orde, egunak jai hartzen hasi ginen. Egoerak hobera egingo zuela uste nuen, baina 2008ko otsailean kalera joan nintzen, eta iazko ekainean, udal-txetik lorazain lanerako deitu zidaten arte, langabezia-saria kobratu nuen. Udaletxekoa lau hilabeteko lana besterik ez zen. Etxearen hipoteka, argia, ura, gasa, telefonoa, umeen eskolak, etxepeko gastuak... kapritxorik batere egin gabe ere, oinarritzko gastuetarako beharrezkoa da etxean dirua sartzea. Fakturak

ordaindu eta jatekoa ailegatzen bada, ondo. Nire emaztea eta seme-alabak amaginarrebaren etxera joaten dira bazkaltzera, egunero eta afaria ere amaginarrebak ematen digu, geure etxean jateko. Bestela, herriko frutadenda batean bada krisiaren kontrako eskaintza: dozena erdi arrautza, kilo bat patata eta ogi bat euro bat pasatxo kostatzen da. Tarteka, horixe erosten du emazteak eta patata-tortila jan eta kito. Udaletxean lanean ibili nintzen lau hilabeteetan zeozer aurreztu genuen eta, aurtan, semeak komunioa zuela eta ongi etorriko zirela genion. Ailegatu zen urtarrila, eta kolpetik ordaintzeko lau faktura etorri zitzaizkigun: gasa, kontribuzioa, kotxe-ko seguroa eta alabaren betaurrekoak. Guztira 1.100 euro, ordaintzeko. Aurreztuta genituen 1.000 euroak egun batean han joan ziren. Komunioko bazkaria etxean egitea erabaki genuen, baina nire amaginarrebari ilusioa egiten ziola eta, bazkaria berak ordainduko duela eta jatetxe batean egitekoak gara. Goizero, jaiki, umei gosaria eman eta Interneten eta egunkarietan begiratzen dut lan eskaintzarik baden. Hemen inguruko en-



Carlos Garcia -Ainhoa Beatriz alaba txikia besoetan duela- eta Beatriz Castillo, senar-emazteak.

presa guztiak pasa ditut, curriculumak entregatuz. Azken sei hilabetetan bost aldiz joan naiz Bastidara lan eskean. Kontua luzerako dago. Ekonomian aditua den bati aditu nion, hau lehengora bueltatzeko 2015a izango zela. Eta, zer egon behar dut horrela? Lanik egin gabe?”

M. ROSARIO AIZPURUA

|||Adina. 50 urte |||Zer egoeratan dago. Irailean bi urte egingo ditu langabezia-saria kobratzen.

“irailetik aurrera izango denaz buruari bueltak ematen dizkiot”

“Irailean bi urte beteko dira lanik gabe geratu nintzela. Egurra lantzen duen enpresa batean egiten nuen lana, altzari osagarriak ekoizten. Eraikuntza krisia medio, lana jaisten joan zen eta tailerrean egoera oso beltza zegoen. Profesional batek horrela esan zidan: ‘zuen sektorea [egurrarena] ez dago koman; koma sakonean dago’. Enpresa uzteko zortzi bat boluntario eskatu zituzten eta alde egitea

erabaki nuen. Hasieran, ongi etorri zitzaidan. Aita gaixo nuen eta hura zaindu ahal izan nuen. Aita hil zen eta, noski, ia bi urte egitera noa langabezia. Langabezia-saria kobratzen ari naiz, baina irailetik aurrera izango denaz buruari buelta asko ematen dizkiot. Prestazioa bukatzean, subsidiarik badagokidan informatzera Udaletxera joan naiz. Lasai egoteko esan didate. Baina, dirudi pixka bat arrazista bilakatzen ari garela. Ikusten duzu etorkinei-eta laguntzak ematen dizkietela eta uste dut, berekoikeriaz, lehenengo etxea garbitu, orraztu, behar dela, eta, gero, kanpora lagundu. Ni hamabost urterako hasi nintzen lanean eta, bat-batean krisiak harrapatzea... Duela 25 urteko krisiak ere harrapatu ninduen, baina ez da berdina. 50 urte ditut, banatuta nago, bakarrik bizi naiz eta etxean nik ez badut dirurik sartzen, inork ez du sartzen. Adinari dagokionean pixka bat ikututa harrapatzen zaitu, osasun aldetik ere bai. Hernia bat ez baduzu, meniskotik operatuta zaude. 25 urterekin harrapatzen bazaitu edozer lani heltzen diozu. Umeak zaintzen edo etxe-garbitzaile hasteko ez dut eragozpenik, baina 29

urtez kotizatuta, gizarte-segurantzaren kotizatzen jarraitzea interesatzen zaizu. Itxuraz pertsona lasaia ematen dut, baina oso gogorra da pasatzen ari naizena. Buruari buelta asko ematen dizkiot eta segurtasunik ez dudanez beti beldurrez nago. Telefonoa dela, ura, gasa, argia... eta bizi egin behar duzu. Lehen, mila eta zeozer kobratzen nuen, orain 900 euro eta, irailetik aurrera igoal ezer gabe geratuko naiz. Justu-justu graduatua dut eta duela hamabost urte geriatriako ikastaro bat egin nuen. Geldirik ez nago, ahal dudanean, saiatu egiten naiz. Internetan erabiltzeko ikastaroa ari naiz egiten eta frantseseko eskolatan ere banabil, pixka bat birziklatu asmoz. Kontua penagarri ikusten dut. Geriatrikoetara-eta curriculumak bidaltzen ditut, baina esperientzia eskatzen dute eta urteetan berniz tailer batean arituta, zer nahi dute ba? Erdikalean negozio bat jartzea ere pentsatu nuen, kulero denda bat bada ere. Baina, esaten duzu, ‘zer jarri?’. Herria hilda eta dena asmatuta dago. Askotan, arpa jozteagatik, Erdikalean sex-shop-a edo gozoki denda ireki behar dudala esaten dut.

► CARLOS GARCIA

III Adina. 48 urte III Zer egoeratan dago.
Hilean 700 euroko prestazioa kobratzen du.

“Lana eginda ondo banatzen
genituen gastuak; orain, ezin da”

“2001eko martxoan etorri ginen emaztea eta hiru seme-alabak Argentinatik Azpeitira. Han egoera ez zen horren txarra. Gure kontura egiten genuen lana, okindegi txiki bat genuen. Bizi ginen auzunean, ordea, segurtasunik ez zegoen. Gaztetxoek kalea dute eskola eta gure seme-alabentzako ez genuen halakorik nahi. Aurreneko urteak ondo joan zitzaizkigun. Etorri eta maiatzean lanerako deitu zidaten. Altzari fabrika batean urtebete egin nuen, baina kontua okertzen hasi zen eta enpresa itxi zuten. Itxi aurretik alde egin nuen, ordea, hiru hilabete kobratu gabe baineramatzen. Nik jakin ez, eta lanari uko egiteagatik, langabezia-saririk gabe geratu nintzen. Gure kasaka egin nahi genuen aurrera, baina gizarte laguntzailearengana laguntza eske joateko aholkatu ziguten. Lana berehala bilatuko nuela uste nuen, baina kosta zitzaidan. Marmoles Ebaki enpresan hasi nintzen. Bost urte egin nituen. 2007an krisiaren etorrerarekin lana asko jaitsi zen. Egun asko ezer egin gabe eta estutu egiten nintzen. Tailerra garbitzen pasatzen nuen denbora eta alde guztietatik distiratzten zuen. Saiatu zen ni han mantentzen, baina ezingo nuela han lanean jarraitu esan zidan. Ulertu nuen. Geroztik, langabezia-saria kobratu dut eta gauzak asko okertu direnez, ETT bidez hilabete batzutan Tablas 21 tallerrean egin dut lana eta beste lau hilabetez, Talleres Azpeitian, lanik ez eta kaleratu ninduten arte. Gero, Donosti-

Eskariak goraka

III Herriko hainbat famili eta norbanakoren beharrei erantzun eta laguntza eman asmoz lanean dihardute Azpeitiko udalean, gizarte zerbitzuetan. Ekonomia krisiaren eraginez, lanik ez zaie falta han. Gizarte Zerbitzuetako teknikarien arduradunaren esanetan, “aurtengo orain arteko datuak iazkoekin alderatuta “laguntza eskariak izugarri igo” dira. “Iazko apirila arte 65 pertsona eman zitzaen laguntza, eta aurtun, dagoeneko, 151 lagunek jaso dute.

Laguntzen artean, “eskaririk handieneko zerbitzuak alokairua ordaintzekoak, etxeko mantenura—argia, ura— bideratutakoak eta kreditua ordaintzekoak dira”.

Bizi dugun egoera ekonomikoak badu beste ondorioirik: “lan faltak, familiko diru-sarrerak eskasiak eta segurtasun ezak harremanak nahasten ditu. Banandu nahi duten hainbat bikotek ezin dute pauso hori eman, bananduz gero hainbat gasturi ezingo dietelako aurre egin. Hortaz, batera jarraitu behar dute. Esaerak dioten bezala, zuk ohe batean izara txikia baduzu, tira eta tira puskatu egiten da. Izara handia baduzu, ordea, denak errazago egongo dira. Egoera horiek ari gara ikusten. Noski, senar-emazteen arteko konponezinak seme-alabengan du eragina”.

Gizarte Zerbitzuetako teknikarien arduradunak adierazi denez, herriko jendeari “kosta” egiten zaio zer egoeratan bizi den esatea. “Denak ondo bizi garen irudi hori du Azpeitiak: etxea, kotxea, oporretara joan... Batik bat jende gaztea hasi da pauso hori ematen. Lasaitasun osoz etorri beharko lukete, diskrezio osoa baitu”.



III “Askotan, arpa jotzeagatik, Erdikalean ‘Sex-shop’-a edo gozoki denda ireki behar dudala esaten dut”

MARIA ROSARIO AIZPURUA
langabetua

ko Vicesa segurtasun enpresan hasi nintzen, baina apirila erdian lanik gabe geratu naiz. Semea lan bila dabil. Goi mailako informatikako zikloa hasi zen Donostian ikasten, baina ikasketak ordaindu ezin dizkiogunez, utzi egin behar izan du. Alaba bat ile-apaintzaile izateko ari da ikasten eta bestea DBHko 2. maila ari da egiten. Emazteak garbiketa enpresa batean egiten zuen lana, baina hura ere kalean geartu da. Inoiz ez gara horren estu ibili. Andreak langabezia-saria 300 euro kobratzen du hilean, baina bi hilabete eta bukatu egingo zaio. Nik hilean 700 euroko prestazioa jasotzen dut. Biok lana eginda gastuak ondo banatzen genituen; orain, ezinezkoa da. Burua jaten dut. 48 urte ditut eta lanerako hartzeraz jende gaztea eta kualifikatua hartuko dute. Ea zortea dugun eta lana bilatzen dudan. Duela urte eta erdi, gainera, alabatxo bat izan genuen. Bizi dugun une zail hauetan etxeko bizipoza da. ✱

KIRURI
JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 55 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta dizainu ikastegia

di

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

ORDULARI

Jose de Arlebie, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

LUBA
aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

INEMeko bulegoko ilarak

||| 2008ko udazkenean, krisia lehertu zenetik ez ditu orain bezainbeste langabe eduki Azpeitiak, eta etorkizunak ez dirudi hobeia. Horretarako, langabezia datuei begiratu besterik ez dago. Iazko martxoan baino %1,05 langabe gehiago dago aurtengoa: orduan 623 baldin bazeuden, orain 773. Duela bi urteko martxoko langabezia datuekin alderatuta ere, aurtengo urtean %2,79 langabe gehiago dago; orduan, 372 zeuden. INEM Espainiako Lan Instituturak emandako datuak dira horiek. Nolanahi ere, Azpeitian langabezia tasa %11ren bueltan dago, Gipuzkoako batz bestekoaren (%11,79) azpitik. Gipuzkoa mailan, "langabezia txikieneko eskualdea" Urola-Erdia—Azkoitia, Azpeitia, Errezil, Zestoa, Bidania, Bidegoian eta Beizama— dela adierazi du INEMeko langile Maite Garciak.

Azpeitiko INEMen "krisiaren eragina gehien bat iazko irailetik antzeman" dutela dio. "Herri industrializatua da Azpeitia eta enpresa batzuk itxi egin dute edo EREra joan dira. Bestela, nahikoa bulego lasaia da hau. Erreterian, Irunen... askoz ere langabe gehiago dago".

Azpeitian, INEMen erregistratutako "langabetu gehien jasotzen dituzten

sektoreak industria—egurra eta burdinia— eta eraikuntza" dira: "sexuari dagokionean, gizonezkoak gehiago dira emakumeak baino eta langabetu gehien jasotzen duen adin tarte 45 urteren bueltan kokatzen da". Garciaren esanetan, inguru honetan langabezia dauden asko pakistandarrak eta magrebtarrak dira: "Burdin lanean ziharduten eta jende hori lanik gabe geratu da".

"Kezka handiena" duten langabeak 40 urte inguru dituztenak dira. "Enpresa batean lan bera eginez pasa dituzte urtea mordoa eta birziklatu gabe daude. INEMen bidez egiten dituzte ikastaroak: kontrol numerikoa, elektrizitatea, informatika, ingeles komertziala... Azken urteetan, arrakasta handia izan du kamioiko gida baimenak. Aurten, ordea, ez dago halako aukerarik, lan eskaintza eskasa da eta". Bestalde, langabezia-saria jasotzeko "aitorpena oso-azkar" egiten dela gaineratu du.

Herriko hainbat familiren "egoera tristea" dela azaldu du. "Kezka eta beldur handia dute. Edozer lani heltzeko pronto dago jendea". Bera "baikorra" dela eta "krisia aurren, pixkanaka buelta ematen joango" dela adierazi du.



Langabetuak Azpeitiko INEMen bulegoan.





ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE
MAIATZAK 6 osteguna 17:30
MAIATZAK 20 osteguna 17:30 / 2. zikloa

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI
MAIATZAK 13 osteguna 18:00

IRUN
MAIATZAK 6 osteguna 18:00 / 2. zikloa
MAIATZAK 20 osteguna 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORITZA
MAIATZAK 8 larunbata 11:00



areto nagusian



etorri aurretik izena eman!

902 110 436 - www.mondragon.edu/prest

Euskal grafiaz

Bake-epaitegitik edota Erregistro Zibiletik abizenak aldatzeko aukera ez da berria. UEMA-k sustatutako kanpainari esker, ordea, errazagoa da. 📎👁 Nekane Zinkunegi

Sarritan izaten ditu arazoak euskal herritarrek ama-hizkuntza dela eta ez dela. Egunerokotasunean, euskaraz aritu eta bizi arren, maiz zenbait txikieria erabakiorrak izan daitezke. Batentzat Gasteiz dena, beste batek ez du Vitoria bezala baino ulertuko, adibidez. Bada, jatorriz eta bizimoduz euskaldunak izanagatik, zenbaitek bere “izanaren” parte diren deiturak erdal grafian idatziak ditu oraindik ere. Euskarak erabateko normalizazio egoera iritsi dezan lan eginez, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak bultzatuta, abizenak euskal grafiaz idazteko erraztasunak eskaintzen dira Azpeitiko Udaleko Euskara Patronatuan.

UEMA-ko kide den Miren Segurola azkoi-tiarrak dioenez, orain urte batzuk, udalerrien elkarte honen baitan dauden zenbait herritan hasi ziren herritarren abizenak euskal grafiaz idazten. “Gerora, euskaldundu gabeko uste baino deitura gehiago zegoela ohartu ginen eta herri guztietara hedatu beharreko zerbait zela baloratu genuen”. Eta, horixe da aurten egin dutena Azpeitiko udalean ere, deiturak euskalduntzeko aukera ahalbidetuz.

Dinamika honen helburua, “hizkuntzaren normalizazioa” da Segurolaren hitzetan. “Historian zeharreko ukazio batzuk zirela medio, bere deiturak gazteleraz jartzera behartua izan zen jende asko eta gaur egun, oraindik, badira hainbat abizen modu horretan jarraitzen dutenak”. Euskararen aldeko la-



Maite Agirrezabala.

nean emandako aurrerapausoak kontuan izanik, aspaldiko zapalkuntza eta ukazio horien adierazle diren erdal grafiazko deiturak mantentzeak ez omen du zentzurik.

Ahoskatu bezala idatzi

Ondorioz, norbanako bakoitzak bere izaera kontuan izanik, bere nortasun agirian abizena euskaraz ahoskatzen den bezala idatzita izateko eskubidea du. Honetarako aukera aspalditik egon den arren, UEMA-rekin “prozesua erraztu” nahi da. “Lehen, erregistro zibi-

lera edota bake-epaitegira jo eta eskaera orria betetzen zen tramite hauek burutzeko” dio Segurolak. Horietan gainera, dokumentu dezente ziren beharrezkoak: NAN-aren fotokopia, jaiotze ziurtagiria, errolda agiria... eta ezkonduak zein guraso direnen kasuan, baita familia liburuaren eta seme-alaben nortasun agirien kopiak ere.

UEMA-ren kanpainarekin, ordea, nahikoa da Euskara Patronatura Nortasun Agiri Nazionalaren kopia bat eramatea. “Gainerako beharrezko datuak, patronatuak berak bideratzen ditu udaletxetik epaitegira”. Behin tramiteak abiatuta, epaitegian ziurtagiria sinatzea eta eskuratzea baino ez da geratzen.

“Behin ziurtagiria eskuan, norbere lana da agiri pertsonaletako datuen grafiak aldatzeko eskaerak burutzea”. Egiaztagiria ez du esan nahi dokumentu guztietan nahi den bezala idatzirik agertzen direla deiturak. “Egiaztagiria, dokumentuak berritzerakoan, datu pertsonalak nahi dugun grafian idaztea zilegi dela erakusten duen frog bat da”.

Deiturak euskal grafiaz idazteko eskaera egitean, “ia inoiz” ez dela arazorik egoten dio UEMA-ko kideak. “Halere, euskal grafiaz idazterakoan, Euskaltzaindiak finkatutako arauak bete behar dituzte abizenek”. Ondorioz, badira uste baino gehiago aldatzen diren zenbait salbuespen: erdal grafiazko Múgica abizena euskaraz Muxika idatzi behar da ezinbestean.

Aurten jarri da abian abizenak modu hone-tan euskalduntzearen egitasmoa. Hala, prentsa-oharren edota UEMA-ren berriraperetako argitarapenen bidezko kanpainak burutu dira herriratzeko asmoarekin. Eta jendearen aldetik “nahiko harrera ona” izan dute.

Ahokatu bezala idatzi

Maite Agirrezabalak balorazio positiboa egi-ten du Azpeitiko Udaleko Euskara Patronatu-tik erraztasun horiek eskaintzeaz. Orain hiru urte aldatu zituen izen-abizenak euskal grafiara, nahiz eta orduan ez zen UEMA-k susta-turiko egitasmoa. “Nortasun agirian jartzen zuenez, ni M^a Teresa Agirrezabala nintzen”. Baina, inoiz ez omen zitzaion gustatu. Bate-tik, berari mundu guztiak “Maitere” deitzen ziolako eta bestetik, deiturako “u” horrek zer-bait arrotza esan nahi omen zuelako.

“Hala, deiturak euskalduntzeko kanpainaren bat bazen orduan abian eta Euskara Pa-tronatuan egin zitekeela jakin nuenean, ber-tara jo nuen”. Hasiera batean izena eta abize-na biak aldatu nahi izan zituen, baina izenare-na askoz prozesu konplexuagoa zela eta, utzi egin zuen une horretan eta gerora heldu zion berriro. Aaurten jada “Maite” agertzen da bere nortasun agirian.

Betidanik “euskaldun sentitu” dela dio Agirrezabalak. Eta, hizkuntzaren normalizazioa-ren bidean, halaxe sentitzen diren guztiek “eginbehar” bezala ulertu beharko luketela-koan dago. “Oraindik ere erdal grafian abize-nak dituen jende hori animatu egingo nuke, inongo zalantzarik gabe”, adierazi du. “Oso erraza tramitea eta ez du beste munduko konplexutasunik”.

||| “Euskaldundu gabeko uste baino deitura gehiago zegoela-eta, herri guztietara hedatzea balortau genuen”

MIREN SEGUROLA

UEMA-ko kidea



Hau da UEMA-k kanpainarako erabili duen irudia.

Modu nahiko sinplean eta errazean joan zela kontatzen du Agirrezabalak: “ez nuen uste horren azkarra izaten zenik prozesua eta ‘u’ hori kentzeak zailtasun gehiago zituelakoan nengoen”. Hala ere, hiru bat asteren bu-ruan, bere eta seme-alaben deiturak, euskal grafiaz idatzita zeuden.

Autoeskolako irakasle bezala urte askoan aritu da lanean Agirrezabala. “Nire lanbidea kontuan izanda, sarri sinatu beharreko hain-bat kontu izaten nituen eta nik, neure abize-na, neuk nahi nuen bezala, ‘u’-rik gabe idaz-ten nuen”, oroitzen da. Baina, dokumentu ho-rietako sinadurek, ez omen zioten balio nortasun agirian bezalaxe sinatuta ez bazen, eta maiz errefusatzeko omen zizkioten.

Hargatik, berak, “euskaldun izaera eta sen-timenduaren parte” bezala ulertzen du deitu-rea ere. “Nahi edo ez, ofiziala izateak du azke-nean garrantzia”, gaineratu du. Eguneroko bi-zitzan ohartu ez arren, Nortasun Agiri Nazio-nalean agertzen diren izen-abizenak dira gai-nerako kontu guztietarako baliatu beharrekoak. “Nik horregatik nahi nuen nire nortasun agirian agertzen zen deitura euskal grafiaz idatzia izatea, benetan egunerokota-

sunean ditudan beharrei erantzuteko ere, ha-laxe izango nuelako hain zuzen”.

Euskararen normalizaziora pausoa

Maite Agirrezabalak bezala, bere deitura euskal grafiaz idatzita izateari garrantzia ematen dion edonork, Azpeitiko Udaleko Euskara Patronatura NAN-aren fotokopie-kin joatea beste eginbeharrik ez du. Gisa ho-rretan, beharrezko dituen dokumentu ofizial guztietan eskatzailearen deitura euskaraz idatzirik izateko ziurtagiria eskuratuko du eta bide batez, gure hizkuntzaren normalizazio bidean, urrats txiki bat ematea ahalbide-tuko du.✱

||| “Euskaldun sentitzen diren guztiek eginbehar bezala ulertu beharko luketelakoan nago”

MAITE AGIRREZABALA

izena-abizenak aldatuta ditu

 **ostadar optika**
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK
Jose de Arrese, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

 **Ekain**
ALBARTARI KLINIKA
Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Larrialdiak:
943 15 16 40

 **ORKATZ KULTUR ELKARTEN**
Erdi Kalea, 24 • Tel. 943 15 00 06

 **AZKOITIA**
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA
Tel.: 943 81 47 12



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...

||||| jaione unanue |||||



||||| leire goenaga |||||

Pausorik gabeko elkartasuna

Jaione Unanue. Hau dun pauso pila galarazi dutena oraingoan ere.

Leire Goenaga. Koadrilako testigua gogo handiz hartzeko prest nagonan eta ni bezala beste asko.

Jaione. Bai, aurten ere, norbanako, talde eta eragile asko zeudenan Azkoititik Zarautz arteko bidean elkartasuna irudikatzeko prest.

Leire. Milaka eta milaka pauso egitea debekatu zitenan Madrilgo bulegoetatik. Bidean oztopoak jartzen profesionalak ditun.

Jaione. Hala ere, pauso gutxiago eginda elkartasuna ez hunan falta izan Zestoan. Hori bai, herri kiroletan azpeitiarrak nagusi!

Leire. Eta Errezilgo neskak!

Jaione. Garbi ikusi hunan hire herriko neskek kasta badutela.

Leire. Badaezpada ez dinagu gauza gehiago komentatuko. Badakin Dignidad y Justicia-koak egun horretan eskaini zen kontzertu bateko bi gitarristen bila dabiltzala.

Jaione. Ez gaitun gu pistak ematen hasiko.

Elkartasun Eguna

Leire. Maiatzean ere izango dinagu aukera parte hartu, jaiaz gozatu eta maite ditugula adierazteko!

Jaione. Ez dun asko falta eta honezkero ari ditun herriko hainbat txokotan guztia prestatzen.

Leire. Herriko presoek ere beren egutegian markatuta izango dituen eguna.

Jaione. Aurrekoan pausoak bezala orain korrika egiteko aukera ere ez dun faltako. Honezkero, ariko haiz Elkartasun Eguneako kroserako entrenatzen.

Leire. Badakin, beti ere nahi baino gutxiago. Korrika, aizkorari kolpeka, umeak saltoka, la-

||| **JAIONE.** “Denontzako zagon lekua elkartasunaren sokari heldu eta tiratzeko”

||| **LEIRE.** “Indarrez eta ilusioz tiratzen badinagu... hori egina zagon”

nean, kantuan... Frantziako eta Espainiako zeldetara eta hurrunera iritsiko gaitun.

Jaione. Denontzako zagon lekua elkartasunaren sokari heldu eta tiratzeko.

Leire. Indarrez eta ilusioz tiratzen badinagu... hori egina zagon.

Jaione. Ia ez den oztopo berririk iristen Espainia aldetik.

Leire. Udaletxean ere hor aritzen ditun giza eskubideak gora, eskubideak behera, agian ez ditun kabituko beren hitzetan euskal preso politikoen eskubideak.

Jaione. Oztopoak oztopo, senide, lagun, aukokide, herritar ditugunei ez zaien faltako elkartasunik eta babesik.

Leire. Maiatzaren 22a arte!✳



Presoengana elkartasunez

‘Elkartasunez presoak herrira’ lelopean krosa, herri kirolak, bazkaria, manifestazioa, kontzertuak... izango dira hil honen 22an ospatuko den Elkartasun Egunean.  Ainitze Agirrezabala

Aurten ere Azpeitian ez du hutsik egingo presoen, iheslarien eta deportatuen aldeko Elkartasun Egunak. Maiatzaren 22an, hamargarren aldiz, eta ‘Elkartasunez presoak herrira’ lelopean, egun osoko ekitaldia izango da herrian.

Goizean, 11:00etan, plazatik abiatuta egingo den krosarekin emango zaio hasiera Elkartasun Egunari. Azken urteetako ibilbide bera izango du krosak eta parte hartzen duten korrikalariak 6 km egin beharko dituzte.

Eguerdian, 12:30ean hasita, koadrilen arteko herri kirolak izango dira. Behin horiek bukatuta, herri bazkaria izango da Berdura plazan, 14:30ean.

Arratsalde partean, ekitaldi gehiago izango da. Umeek ere jolasen gozatzeko aukera izango

III DATUAK

III **Zer**. ‘Elkartasunez presoak herrira’ Elkartasun Eguna.
III **Eguna**. Maiatzak 22 (larunbata). III **Ordua**. Egun osoko ekitaldia. III **Tokia**. Plaza. III **Antolatzailea**. Azpeitiko Amnistiaren Aldeko Mugimendua.

dute horretarako jarriko duten gunean, 16:00etatik aurrera. Ondoren, 17:00etatik aurrera, Txan Magoaren emanaldia izango da. Sokamuturraren zale direnek zezena zain izango dute, plazan, (16:30). 18:30etan manifestazioa izango da, plazatik abiatuta eta, gero, batukada kaleetan ibiliko da. 23:00etan, kontzertuak izango dira, palzan: Orreaga 778 eta Bizardunak.*

III ELKARTASUN EGUNA

10

. **aldia**. Aurten ere ez du hutsik egingo presoen, iheslarien eta deportatuen aldeko Elkartasun Egunak.

6

km. Herriko plazatik hasita, distantzia hori egin beharko dute Elkartasun krosean parte hartzen duten lasterkariak.*

III BESTERIK

1 Juaristiren erakusketa

Teknika mistoa erabiliz, pintura eta argazkia nahastuz sortutako irudien erakusketa izango da. Azkoitiko Udane Juaristik egin ditu irudiak.

III **Eguna**. Maiatzak 10etik 23ra.

III **Ordua**. 18:00etatik 20:00etara. III **Tokia**. Betharram aretoa.

2 Baratzagintza ikastaroa

Baratzagintza ekologiko ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek hil honen 21erako eman behar dute izena 943151713 zenbakira deituta. Ikastaroa debalde izango da.

III **Eguna**. Maiatzak 26 (asteazkena). III **Ordua**. 18:00etatik 20:00etara III **Antolatzailea**. Udaleko Inguru Sailak antolatuta.

3 Futbol 7-ko txapelketa

Nepalgo hainbat umezurtzetxeri laguntzeko dirua bildu asmoz, futbol 7-ko txapelketa antolatu dute. Hamabost urtetik gorakoek hartu ahalko dute parte eta taldeko 60 euro ordaindu behar da. Maiatzaren 20rako eman behar da izena: Zuhatzen, ISBN eta kiroldegiko tabernan.

III **Eguna**. Maiatzak 29 eta 30 (larunbata eta igandea). III **Ordua**. Egun osoa III **Tokia**. Garmendipeko belar arifizialeko zelaia. III **Antolatzailea**. Childbright fundazioa.*

III **Azpeitiko ekimenez informazio gehiago**: uztarria.com/agenda



Iazko Elkartasun Egunean jendea herri bazkarian, Berdura plazan. III **Amaia Mendizabal**

Azpeititik kanpora bizi bazara ere
jaso zure etxean herriko berri hilero-hilero



uztarria
uztarria@uztarria.com
943 15 03 58

HITZ GEZIDUNAK

	Seguruak	▼	... egin, hanka egin	▼	Aukeratzuz	▼	Poesiari dagokiona	▼	Harginaren lanabesa
	* Izena		Nazio Batuak		... egin, agurtu		Komaren erdian	▶	▼
	▶		▼		▼		Ausartak, lotsagabeak		
	Ubeldura	▶					▼		
	... egin, gurtu								
* Deitura	▼	Gramoa	▶	▼	Temati	▶			
Zerikusia		Eragoz- penak			Ai!, atx!!				
▶		▼			▼	Enbor	▶		
						Amerikako mendialdea			
Barne organoa	▶				▼	Oihalezko poltsa	▶		
Emakume izena						Aise, erraz			
▶			Musika tresna	▶		▼	Begirada	▶	
			Garau, bihi				(Infin.) Kendu		
Erlijio aita	▶		▼	Idiaren okela	▶		▼		
Bizkaieraz, fruitu				Idi, hitz elkarketan					Ez eme
▶			▼		Hizki bihurria	▶			Bokala
					Kontso- nantea				▼
Ernaltzeko zerri arra	▶				▼	Krudel	▶		
									Bokala

* Azpeitiko igerilaria

Egilea:
Luma

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan irudiko zortzi etxetresna elektrikoek izenak



A	A	T	S	I	B	E	L	E	T	N	T
U	X	D	U	I	A	H	I	R	R	I	L
L	I	Z	E	R	G	I	S	O	A	A	L
I	N	A	F	R	T	R	A	O	B	E	A
A	U	L	I	A	G	A	N	E	D	R	O
G	A	I	S	T	O	B	A	L	E	I	Z
R	A	H	O	I	L	I	S	T	O	R	E
O	S	D	I	A	O	A	X	T	N	A	H
H	G	A	R	B	I	G	A	I	L	U	A
E	G	U	A	P	S	A	L	E	R	D	I
L	E	M	A	U	L	I	A	K	Z	O	H
N	R	A	I	H	X	L	T	A	D	N	E
I	E	I	L	O	R	U	Z	I	U	R	O
L	B	P	U	G	A	A	N	K	E	S	L

SOLUZIOAK


HITZ GEZIDUNAK

R	E	K	N	A		Z	T	E	K	A		
A		A	E	S	E		I	A	I	G	A	
		A	I	K	I	D	I		A	B	A	
A	O	S		A	N	A	K		A	N	A	
U	K	Z		A	I	A	R	A	R	E		
L	I	B	I	S		A	R	U	T	L	O	
I	A	T	A	E	S		R	G		G		
A		E	N	U	E	L	B	U				
M			A	O	H	I	N	A				
		P		H		I		Z				

HIZKI ZOPA

L	N	K	E	S		A	V	G	A	L	B	P	U	G	A	
O	R		Z	I	U	R		L	O	R						
E		T	A	D	N	E		X	H		N	R	A	I		
H	O	Z	O					A	U	L		E	M	A		
I		A	L	E	R	D		A	S	P	S		G	U	A	P
A		L	U					G	A	R	B	I				
H		A	T	N	A			O		A		S	D	I		
E			S	T	O	R		L		H	O		R	A		
Z		A	L	E	I	Z		B		T	O		S	A	I	S
O			A	N	E	D	R		A							
E		A						G	A							
A		R	A	O	B	E	A									
L		I	S	O	A	L										
U		X	D	U												
A		T	S	I	B	E	L	E	T							

ZEIN DA?



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTTEKO EPEA. Apirilak 23 (ostirala) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZEIN DEN ADIERAZI.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN APIRILEKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZER DAGO SOBERAN? ZER FALTAN?

ARKUAREN GAINENKO HIZKIAK EZBERDINAK DIRA

IRABAZLEA



Jabier Maiz Gastesi Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 116. irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Jabier Lasa, saria eskuetan duela.

ETXEZ ETXEKO
ARDO BANAKETA

943 76 98 51 Larchago



Larchago kriantza 2006
GETARIAKO ASTILLERO JATETXEKO
ARDO KARTAN

Kriantza Lepagorria borobil eta erraz edatekoa.

Usakumea eta usoa

AMAIA SALEGI tatuaje-egilea

Borrokarako edo ikuskizunerako erabiltzen diren abere guztiak bere egoera pribilegiatutik erortzen ari dira gure artean: zezen suharra, ahariak, idiak, oilarrak eta usakumeak edo haitz-usoak.

Umea nintzenetik hazi ditugu usoak gure etxean. Baserriko usakumeek hiru edo lau asteko bizia izaten dute eta beren gurasoek hazten dituzte. Bere haragi samurrak %15-20 koipea du, ia dena larru azpian.


Jangarria den haragia %50 da eta ia %20 proteina du. Azukrerik ez du eta beste dena prestatzen erabiltzen diren gaiena izango da. Jaten dugun 100 gramo bakoitzak 500 kaloria ematen ditu; hau da, egunean jaten dugunaren bostetik bat. Dena dela, janari indartsua da, pertsona osasuntsuentzat eta liseriketa aparailuko akatsik ez dutenentzat.

Duela urte gutxi arte, ekologiaren eta izadiaren oreka gauza bera zirela uste nuen. Baina, gaur egun pentsatzen dut mundu ekologikoan bizi garen izaki bakarrak pertsonak garela. Naturan bertan konturatu nintzen hegazti harrapariak eta lau hankako beste pizti batzuek nire mendiko usategiaz liluratu zirela eta usorik gabe utzi ninduten.

Hobe izango dugu pentsatzea bakearen ikurrak direla eta uso mandatariak ere badirela.*



||||||| **julian bereziartua** |||||



1. Zenbat koloretakoa?

Dotoreena kolore beltza itzalekin geratzen da.

2. Zer ez tatuatzeko aholkatuko zenuke?

Bikotearen izena.

3. Zer dago modan?

Letra txinatarak, arabiarak eta izarrak.

4. Damutuz gero, zer?

Laser bidez kendu daiteke. Baina, mingarria eta garestia da. Betiko dela pentsatuta egin behar da.

5. Eskari handiena?

Orain, udaberrian.

6. Zenbateko kostua?

70 eurotik hasita.

7. Nolako tatuajeak?

Esanahia dutenak.

8. Tatuaje on bat egiteko zer behar da?

Pultsu ona eta pazientzia.

6. Zer lekutan?

Hanka gainean, lepo atzean eta triparen albo batean.*

Ainitze Agirrezabala

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

**lentzeria
mertzeria**
jose artetxe, 16
nabar

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

JAZKI moda
Jose de Artetxe 10
Tlf: 943 81 17 69

AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
**URBISTONDO
MARGOAK**
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

lora-etxea ...

Kimubat
ASTE BUKAERAN IREKIA
Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa: 943 150085 www.kimubat.com

ELKARRIZKETA libe aranburu/aktorea

“saiaitu egin behar da eta gauza asko egin, baina antzerkitik soilik ezin da bizi”

Libe Aranburu (Azpeitia, 1982) Glu Glu antzerki taldearekin dabil azken lau urte eta erdian. 2009an hiru lan estreinatu zituen: *Cocidito Madrileño 2*, *Anbotoko Mari* eta *Kanpaia jo bitartean*.

Herri herri zabiltzate Kanpaia jo bitartean antzezlanarekin. Zein herri tako esperientzia izan da onena?

Urtebe inguru daramagu antzezan hau egiten. Nafarroan eta Araban aritu gara antzeztan, baina Gipuzkoan eta Bizkaian egin dugu gehien bat. Esperientzia onenak, berriak, Azpeitikoak eta Ondarrukoak izan dira. Azpeitian eskaini genuena mundiala izan zen, lagunak, ezagunak... ikusle artean baitzeuden.

Helduen antzerkia egitea “erronka” izango zela esan zenion uztarria.com-i duela bi urte. Zer moduzko esperientzia izan da?

Erronka izan da, kode ezberdina

delako helduena; testu luzeagoa, gorputzaren mugimendu desberdinak... *Kanpaia jo bitartean* obra, gainera, bi aktorek egiten dugu eta ardura handia da. Jendearen erantzuna ona izan da eta horrek bete egiten nau.

Umorezko antzerkiak ere egin izan dituzu.

Kanpaia jo bitartean egin arte, haurrentzako lanak egiten nituen eta bazuten umore ukitu bat,



baina umore klabea ez nuen sekula egin. Oso desberdina da.

Zer moduz Glu Glu taldean?

Arte Dramatikoko ikasketak bukatu eta kasting batera aurkeztu nintzen. Aukeratu egin ninduten eta handik aurrera gauzak errazak izan dira. Sartu nintzenetik denerako kontatu dute nirekin. Oso gustura nago, beraz.

Euskal Herrian antzerkitik bizitzea posible al da?

Antzerkitik bakarrik, ezin da bizi. Nik bikoizketak eta antzerkia egiten ditut eta horrela biziraun daiteke. Saiatu egin behar da eta gauza asko egin, baina antzerkitik soilik ezin da bizi.

Beste antzezlanik ba al duzu esku artean?

Momentuan ez. Ez nuke nahi, gainera. Orain, lau antzezlanetan nabil eta testu asko eduki behar dut buruan. Hala eta guztiz, zerbait entzun dut, baina ez zait eskuetara iritsi. ✖

EFEMERIDEAK

1529

Monastegia egiteko asmoz. Pedro Irigoien lurralde bat eta baratza erosi zizkieten Frantziskanetako lekaimeek.

1620

Inazio, Loiolako patroia.

Zumaian ospatu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta, Loiolako Inazio patroitzat hartzea erabaki zuten.

1739

Parrokien erabakia. Sute bat gogoan, herri barruan eta Urrestillan —bereziki, tabernetan— tabako hostoa erretzea debekatu zuten. Bi mila maraiko isuna eta zortzi eguneko kartzela jarri zuten zigor bezala.

✂ **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

✂ Egilea: Imanol Elias Odriozola.

✂ Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea. ✖

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

✂ eguneko albisteak ✂ irakurleen erantzunak ✂ eguneko argazkia ✂ bideoak ✂ blogak ✂ inkesta ✂ agenda ✂ bitxikeriak ✂ ‘azpeitia’ atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ✂ uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai ✂ eguneko efemerideak ✂ gida komertziala...

✂ sartu sarean, eta hartu parte ✂ egunero **7.000** orrialderen bisita



Oholtzatik jaistean

Erromeria kontuak alde batera utzita, bestelako gauzez aritu da oraingoan; hirurogei urteetan bizitakoei errepasoa emanez. 📎 Ainitze Agirrezabala (Donostia)

Xabier Saldias izena aitatzean, 80ko hamarkadan egundoko arrakasta lortu zuen Egan talde berbeneroa eta erromeriak etorriko zaizkio askori burura. Ez da gutxiagorako; bizitza erdia baino gehiago darama Saldias musikaren munduan. Oraingo honetan, ordea, erromeria kontuak alde batera utzita, bestelako kontuetaz hitz egin du Uztariarekin, 60 urteetan bizitakoei errepasoa emateko prest.

Hogeita hamar urte pasatu dira Azpeititik hiriburura mudatu zela. “Azpeitian izurritea balego bezala etxea saldu eta familia guztiak irten genuen. 29 urte nituen. Aita gai-xotasunagatik erretiroa hartuta zegoen eta anaia-arrebak –zortzi dira– ikastera kanpora joan ginen. Lanerako deitzen didatenean bakarrik joaten naiz Azpeitira. Donostian azpeitiarra naiz, eta Azpeitian donostiarra. Azpeitiarrek, ordea, badute *ñoñoñtiar* hauek ez dutena, Azpeitian beste kasta bat dago”.

Apaiz izateko balio ez

Mutikotan, hamar urte arte, Maristetan ikasi zuen Saldias. “Loiolako jesuitak etorri zitzaizkigun, bokazioa genuenak aukeratu eta Jabiererra eramateko. Semea kolegiara bidaltzeko dirurik ez zuela esan zien gure amak. Jesuiten erantzuna, lasai egoteko, beraiek pagatuko zutela eta. Hala, garai hartan denak



bezala, apaizteko estudioak egitera joan nintzen ni ere, interno”. Lau urtera, ordea, gutun bat bidali zuten Saldiasen etxera: “Noski, haiek pagatzen dizute Jesuita izatekotan, baina emakumea gehiegi gustatzen zitzaidala antzeman zuten eta gutunak hala zioen: *no da garantías para la vocación*”. Ikasketekin jarraitzeko norabait jo behar eta Tuteran bukatu zuen: “Oraindik ere garestiagoa zen eta pijo-agoa. Trajea eta gorbata jantzita joaten ginen ikastera. Beraiek esaten zutena gorrotatzen, horixe bakarrik ikasi nuen han”.

Bokaziorik ezean, Donostian enpresazientziak hasi zen ikasten. “Alokairuan pisua hartu nuen. Hiru urtean matematikak bazterrean edukita, bat-batean deribatuak, integralak... ematen hasi ginen. Txinoa zen hura niretzat. Klaseak goizez ziren eta arratsaldeak jai. 18 urterekin zer egingo duzu ba, parranda! Horretan geratu zen nire karrera”. Orduan hasi zen musikaren munduan Saldias.

Palan, onenaren pare

Denbora librean, lagunekin palan jokatzeari ikaragarri gustuko du. Caceresen soldaduska egin, eta handik bueltan sartu zitzaion palaz ibiltzeko harra barrenean. “Izarraitzen, Silvestre Otamendi alkatearekin-eta hasi nintzen, pixkat bat laguntzeko gazte bat behar

||| **MOTZEAN** |||||**KANTU BAT?**

Queen taldearen 'Bohemian Rhapsody'.

ABESLARI BAT?

The Carpenters.

ZERK POZTEN DIZU EGUNA?

Hogei urterekin neskek; hirurogeirekin osasun ona izateak.

ETA, ZERK GARRAZTEN?

Errespetu faltak, harrokeriak.

ABESLARI EZ BAZINA?

Pilotaria, palista.

JAKI BAT?

Bixigua. Hogei urte dira jan ez dudala.

EDARI BAT?

Bazkaltzeko ardoa, txakolina aperitiborako eta udan sagardoa.

KOLORE BAT?

Urdina. Egun eguzkitsua, itsasoa...

AMETS BAT?

Euskal Herria libre izatea.

zutela eta. Lehenengotik gomaz ibiltzen ginen, baina, gero, narruzko pilotekin hasi ginen. Migel *Euzkitze*-rekin bikote polita osatzen nuen. Goi-mailara segituan iritsi ginen eta txapelketetan parte hartu izan genuen guztietan nagusi izan ginen. Hasten naizen horretan oso konbultsiboa naiz eta onena edo bigarren onena izan behar dut; bestela, batez". Saldiasen esanetan, "berezko gaitasuna" izan behar da, baina "jaio baino, jardunaren poderioz gehiago ikasten da". Oraindik ere segitzen du pilotari gogotik ematen: "As-tean hirutan ibiltzen naiz lagunekin, lbaetan. Baina, gu bezala, ia indarrak jaitsi zaizkiguentzako trinketea oso polita da".

Alkizako festetan

Orain 40 urte, berbenetan puntako taldea izan zen Egan, eta "neskatarako aukerarik" ez zitzaiola falta izan dio Saldias: "Herriherri ibiltzen ginen eta nahikoa eduki nuen. Ezin naiz kejaratu". Kontu honetan "teoria bat" ba omen du: "Gure gurasoek erlijioak esaten zuen dena obeditzen zuten. Ez duzu egin behar ezkondu arte. Eta, ezkondu arte birjina.



1. Saldias koruko triplea izan zen. Loiolako prozesioan, 1959an. **2.** Palan jokatzea gustuko du. Argazkian, Migel Perez 'Euzkitze'-rekin, 1978an. **3.** Sorrerako Egan taldea. Ezkerretik eskuinera: Alberto Frantzesena, Gonzalo Pelaes, Saldias eta Iñaki Korta. **4.** Azpeitiko festarik gogokoenak sansebastianak ditu. Ardozaleak-en danborra jotzen, Frantzesenarekin (1977).

Ernio magalean

||| Gustura galduko litzatekeen lekuaz galdetuta, Ernio magala aitatu du: "Erniopean badugu txabola bat, Kuxkulu izenekoa. Aitak bataiatu zuen izen horrekin. Duela urte batzuk erosi zuen berak eta senide guztien artean konpondu genuen. Balio sentimental handia du guretzat".

Saldias eta senideek han egiten dituzte familiako juntadizoak. "Sua-eta dena dugu otorduak prestatzeko. Hala ere, bakoitzak ditugun konpromisoak medio, nahi baino gutxiagotan elkartzen gara senideak txabolan", adierazi du.

Gure garaian, berriz, kontra egiten hasi ginen. Amari esan nion: 'ama, bizitza guztirako batekin ezkondu behar baduzu, ezagutu beharra dago ohean'. Nork daki, ezer egin gabe ezkondu eta... honekin ezkondu al naiz? Zera, ez dik-eta pitorik balio! Gu enpirikoak izan gara: probatu eta orduan esan".

Alkizako erromerian ezagutu zuen orain

bere emazte dena. "Karreroren kantuan izan zen; *ieup lara!* eta jertsea gora botatzen genuen. Neska gazte ederra ikusi nuen taula gainetik eta jertsea airera bota zuen batean oholtza gainetik hartu nion nik. Saldiasen esanetan, hura ez zen "bat-bateko maitemina" izan: "Lorez-lore ibiltzen aspertuta nengoen eta asentatu eta seme batzuk edukitzeko garaia banuela pentsatu nuen". Elkar eza-gutu zutenean 27 urte zituen Saldias eta 16 urte neska. "Pisua erosi nuen Donostian eta bera han egoten zen, baina ordu onenean, 22:00etarako, bere etxera joan behar izaten zuen. Azkenetako, aspertu egin nintzen eta neskaren gurasoengana joan eta haien alabarekin ezkondu nahi nuela esan nien. Ar-tean karrera ikasten ari zela eta ezkontzen bazuen ez zuela bukatuko erantzun zidaten. Lasai egoteko esan nien, nirekin bi karrera ere bukatuko zituela eta. Hala ezkondu ginen, 33 urte nituela, eta berak 21".

20, 17 eta 14 urteko hiru seme-alaba ditu. "Bizitzan zerbaitetarako ilusioa edukitzeko esaten diet. Nik egiten dudana egiten dudala dena ematen dut, bai musikan, pilotan..." ✨

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (MAIATZA)

EGUNEZ

1-2-7-12-19-27	3-8-9-13-20-24-29-30	4-10-15-16-21-25-28	5-11-14-17-22-23-26	6-18-31
Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 811 949	943 815 974	943 811 274	943 080 258	943 811 350

GAUEZ

1-10-11-12-13-14-15-16-24-25-26-27-28-29-30	2-31
Eizagirre (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 811 274	943 811 350

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Maiatzaren 26an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 09:30-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



IBERDROLA.

Iberdrolak bezeroarentzako arreta-zerbitzua jarri du martxan. Bulego berria Enparankaleko 24. zenbakian dago. Ordutegia, astelehenetik ostiralera honakoa da: 09:30-13:30 eta 16:30-20:00.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

3-8-9-20-21	4-5-17-22-23
Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 85 29 89	943 85 12 35

6-7-18-19
Ruiz (Azkoitia).
943 85 19 66

IÑAKI OLAIZOLA ‘DONO’

Txina

“zaila bezain sinplea dun txinera”

Lana medio Txinan bizi da joan den urteko azarotik. Noiz ez daki, baina Azpeitira itzuliko dela seguru dio. 📌 **Ainitze Agirrezabala**

Nolatan joan haiz Txinara?

Gogorra dun hau esan beharra, baina lanpostu batek ekarri nindunan. Ez hunan erraza izan erabakia, egun pare bat txarrak pasa nitin, baina baiezkoa emateko ordua hunan.

Zer lan egiten duk hor?

Autozio sektoreko Euskal Herriko enpresa bateko filial batean egiten dinat lan. Produktzioaz arduratzen naun.

Txinan non bizi haiz?

Shanghaitik 300 bat kilometrora, 4 milioi eta erdi biztanleko Jinhua hiriburuan. Zhejiang probintzian. Ia atzerritarrik ez dun bizi hemen.

Noiz arte egongo haiz hor?

Noiz ez zakinat, baina Azpeitira itzuliko naunela seguru.

Horra egokitzea asko kosta al zaik?

Aldaketa ikaragarria dun. Bizimodua guztiz aldatu behar dun eta moldatzen jakin. Ni zorionez, ohitua nagon kanpoan bizitzen. Hala ere, azkenean txarrena etxetik kanpo egotea dun, lekuak ez zion horrenbeste axola.

Hizkuntzarekin zer moduz?

Idazten ikastea aspaldi jo ninan ezinezkotzat, baina hitz egiten aurreratu nahian nabilen.

Egunerokotasunean beharrezkoa dinat, beraz ikasi beste erremediorik ez dinat. Zaila bezain sinplea dun txinera. Errazena jendearen aurrean barregarri gelditzea dun, baina nik etengabe eta lotsagabe hitz egiten dut.

Eta, jatekoarekin?

Ezagutzen nauenak imajinatu dezake nola nabilen... Oso sukalde landua eta aberatsa diton, baina ni berezi xamarra naun.

Txinoek egiten duten gauzarik xelebreena zer duk?

Xelebreak baino, guretzat oso arraroak direnak esango ninake: lo edozein lekutan, baita lanean edota bilera batean ere. Karkaxa ateratzen diton uneoro eta lekuoro. Batzuetan, gainera, ez diton botatzen.

Zer dik txinak Azpeitiak ez duenik?


Niretzat lana bakarrik. Beste ezer ere ez.

Nolakoak dituk txinatarrak?

Kolore guztietakoak egon arren, nik orokorrean begi onez ikusten ditinat. Hala ere, nik definitu baino hobe norberak ezagutzea.

Zer botatzen duk faltan Azpeititik?

Faltan zer botatzen ez dudan galdetzen badi-dan azkarrago bukatuko dinagu.✘



1

1. Olaizola Jinhua hiriburuko kale batean paseatzen. 2. Txinoko klasean, irakaslearekin. 3. Txinako etxe tipikoa atzean duela.



3

Bizitza koadernoa

Eguna hasteko moduak.

Ez dakit zein izan litekeen eguna hasteko modurik aproposena. Gogoan dut, oraindik orain eguna Espainiako hiriburuan lanean eman eta hurrengo egunean, atzera etxean, gosaltzen, benetan estimatu nuela bertako bakea. Madrilgo auto festa eroa, zarata eta burrunbada itogarriak egin zitzaizkidala. Hori, eta ikusitako eskale mordoxka, bateko Eguzkiaren Ate ondoan, besteko barruko kale xahar bateko merkatuko atean. Ikusitako eskale guztien artean bat, mingarriena. Emakume zahar zimela, lurrean kokoriko, begiak zuloetatik irten beharrean, eskua eskean, hezur eta azal... Eta ni, batere bizigarri ez zaidan hirian, autobus geltokitik metrora, batarekin jan, bestearekin lan, eta berriro metro eta autobus, etxera, hirian hainbat ordu eginda autobusean.

Horregatik, egun petrala eta gero, inoiz baino goxoago zitzaidan eguneroko gosaria etxeko bakean. Huraxe eguna hasteko modu bikaina.

Txoriak txori. Beste modu bat ere izan dut bikaina, oraindik orain deskubritua. Entzunda neukan, baina gogoan hartu ez, nonbait, eta guardasola bezain ahaztuta neukan esan zidatena. Gasteizko Lakua auzoan bada saltoki handi bat, gaur baino distira handiagoa izana duena noizbait; ireki zutenean, eman dezagun, goiko solairuan dozena erdi zinema-areto zituen garaian. Gaur egun itxita daude areto haiek, eta glamourrik ere gutxi saltokiak.

Hala ere, han nintzen lehengo batean, goizean, zer edo zer beharrean. Goizeko bederatzi eta erdiak, saltokira sartzen, eta musika ezin ederragoa kalean. Saltokira sartu gabe iraun nuen tarte batean, pareko ikastolatik zetorren aire ezaguna aditzen. Mikel Laboaren *Txoriak txori*, ikastolako bozgorailutik La-kuako mundura hoska. Inondik ere, Toki Eder ikastolan gisako musikak –txalaparta hotsa entzun izan dugu inoiz etxetik–, erabiltzen



|||||||miel a. elustondo|||

|||‘Egunkaria’-ren aldeko kontrako epaiaren inguruan entzundako arrazoirik sendoena Uriak eman dit

dute ikasle eta gurasoei gelara sartzeko garaia dela adierazteko. Alde ederra! Gure ikastolan sasoi batean fabrikara sartzeko jotzen zuten sirenari sakatzen segitzen dute... Hantxe geratu nintzen, saltoki sarreran, harik eta musika atertu zuen arte. *Txoriak txori*, Mikel Laboa, hil eta gero ere bizirik.

Libre ez

Euskaldunon Egunkaria-ren aldeko kontrako epaiaren inguruan entzundako arrazoirik sendoena lñaki Uriak eman dit: “Egunkaria ez dago libre, likidatuta eta lurperatuta dago eta!”. Nik entzun eta irakurritakoetan, biribile-na. Ez da geure buruak engainatzea komeni. Ondokoa ez dakit den arrazoiak, edo desarrazoiak, Espainiako juez koadrila batek euskaldunon egunkari bat epaitu, libre deklaratu eta biharamunean gehigarri berezia zekarren *Berria* kazetak. Irakurtzekoetan, bat ezin utzizkoa, Joxe Azurmendirena, zartailua hartu eta zirti-zartaka. Herdoilik gabe,

“guardia zibil inzibilizatuak”, eta “politikari inbezilak”, betebetean asmatu zuen esaten.

Libre? Ez adarrik

jo!*





Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehengo hortz klinika

KONPONDU ZURRUNGEN ARAZOA

ZURRUNGENTZAT ETA LOALDIKO APNEARENTZAT TRATAMENDUA

iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

OrtoApnea, zurrungarik ez egiteko ahoko aparatua

www.grupohorzkari.com



eurotex

P I N T U R A K



BURDINDEGIA



ELEKTRIZITATEA



BRIKOLAJEA



SEGURTASUN BABESA



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 81 25 66 - mug. 607 75 88 01 - www.landetabrikodenda.com

www.eurotex.es



TEL.: 943 15 01 01
Salbe auzoa, 39 behea
20730 AZPEITIA



eskaintza ezin hobeak
zure aurrezkiak salbu
dira gurean



Orange-n Everywhere tarifa kontratatzearagatik ordenagailua dohan

- Mugarik gabeko nabigazioa
- Gehieneko abiadura (7,2 Mbps) 5GB arte, gero 128kbps-a jaisten da.

**39€/hilean
24 hilabetez**



Eee PC 900HA

- Prozesadorea: 1,6 GHz Atom 64 bit N270
- RAM Memoria 1 GB
- Disko gogorra: 160 GB
- Pantaila: 8,9"
- Sistema Eragilea eta softwarea: Windows XP

Netbook-aren partez beste portatil bat nahi baduzu, 150€ko deskontua duzu


innovadental

Bisita gaitzazu:
José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Edo deitu:
943 02 59 55




innovadental

implanteak

Euskadin, 2.000 INPLANTEtik gora
*Eskatu presupuestoa eta kontsultatu
gure finantzaketa!*

hortz-klinika
AZPEITIA